



LAZKAOKO JAIAK



2015



Apirilaren 24tik maiatzaren 1era.

Maiatzak 2 eta 3 Lazkaomendi



Festetako kartel lehiaketa

San Benito ikastolan 3. DBHko ikasleen artean festetako kartel lehiaketa egin dute aurten ere. Aurkeztu diren 28 lanen artean, guztira 59 ikaslek, bozketa egin dute 1. 2. eta 4. DBHko 187 ikaslek eta aurtengo irabazlea, Iruene Sukia izan da, azaleko irudiaren egilea. Hemen dituzue hurrenez hurren 2. 3. 4. eta 5. sarituen lanak.

Lan guztiak ikusteko: www.lazkaotarrak.org/jaiak/kartelak



Ander Eskisabel



Ruben Imaz



Ane Agirre eta Maialen Alustiza



Leire Acosta eta Beñat Mujika

AZKI ESKULANEN ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

Kultur etxean / Casa cultura

Apirila / Abril: 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30

Maiatza / Mayo: 1

Ordutegia / Horario: 12:00 / 14.00 / 18:00 / 20:00

UDALAREN AGURRA

Iritsi da berriro ere Lazkaoko festak ospatzeko garaia. Herritarrok festa batzordearen bitartez eta herriko eragile desberdinen artean osatu diren jai hauek lagunartean ospatzeko gonbitea luzatzen dizuegu. Adiskidetasunaz, kulturaz, jai giroaz eta familiaz gozatzeko garai hauetan ezin ahaztu gure artean egoteko aukerarik izango ez dutenak.

Etorkizunera begira jarri eta gure herria irudikatzerakoan, garbi dugu, erabakitze eskubidea oinarritzat izango dela gure gizartean. Gure herriaren aniztasunaren nahiz berdintasunaren adierazleei omentzeko garaia dela azaldu nahi dugu. Hori garbi izanik aurten ospatuko den JOSTUNAK herri ekimenari bultzada eman nahian suziria jaurtitzeko eskaria luzatu diegu Gure Esku Dago-ko kideei. Guk ere, beraiek bezala, herri kohesionatu eta erabakitzailerik bat dugulako amesten.

Espero dugu festak Herritarrek bezain apartak izatea , GORA SAN PRONTZIOAK!!

Balkoiak apaintzeko garaian ez ahaztu gure ikurriñari ohorezko tarteaz.

MOZORRO EGUNERAKO OHARRAK

Mozorro egunean karpa jarri behar dutenek aurrez udaletxean izena eman beharko dute.

Karpa jartzeko bete beharreko baldintzak hauek izango dira:

- Karpak ezingo du guztiz itxia izan.
- Musika bolumena neurtu egingo da.
- Karpako musikak itzalita egon beharko du oholtzako taldeek jotzen bukatzen dutenerako.
- Karpa jarritako tokitik kendu egin beharko da.

Los interesados en instalar carpas el día de disfraces deberán inscribirse con anterioridad en el ayuntamiento. Los requisitos para la instalación de carpas serán los siguientes:

- Las carpas no podrán ser totalmente cerradas.
- Se medirá el volumen de la música.
- La música de la carpa deberá estar apagada para cuando termine la música de la plaza.
- Las carpas deberán ser retiradas de su emplazamiento.

Egitarauko argazkiak:

Lazkaoko Udala.

Apirilak 25, 26, 28 eta 29 eta maiatzak

teko argazkiak: Aimar Maiz.

Azaleko irudia:

Irune Sukia.

Diseinua:

BIDERA Zerbitzuak (Berría Taldea)

Apirilak 24, ostirala



15:00 XAKEA

Ikastolako hurren arteko xake txapelketa plazako pilotalekuan.
Campeonato de ajedrez escolar en el frontón de la plaza.

19:00 FESTA HASIERAKO SUZIRIA

Gure Esku dago taldearen eskutik, jaien hasierako bandoa eta txupinazoa Udaletxeko balkoitik. Ondoren Ostargi erraldaien konpartsa, buruhandiak eta Jundajo txaranga. Jarraian Drindotsen emanaldia.

Chupinazo y bando desde el balcón del Ayuntamiento a cargo de Gure Esku dago. A continuación comparsa de gigantes Ostargi, cabezudos y charanga Jundajo. Seguidamente actuación de Drindots.

22:30 MUSIKA


Drindots musika taldearen kontzertua plazan.
Concierto del grupo Drindots en la plaza.

TXOSNA GUNeko EGITARAUa

20:00 Elkarretaratzea plazan, euskal preso eta iheslariak etxera!

22:00 Karparen irekiera.

23:00 Kontzertua: Luz de Putas eta Nonnahi taldeak.



Apirilak 25, Larunbata

Mozorro eguna



09:30 **TXIRRINDULARITZA**

LXXII Lazkaoko txirrindulari proba.
LXXII Prueba ciclista Lazkao.

12:30 **MOZORROAK**

Mozorrotuen irteera Jainekin txarangarekin.
Salida de disfrazados con la charanga Jainekin.

19:30 **DANTZA**

Lagni, Guinea Conakriko dantza taldearen emanaldia plazan.
Actuación del grupo de baile Lagni (Guinea Conakri) en la plaza.

22:30 **MUSIKA**

Los Zopilotes Txirriaos eta Skakeitan taldeen kontzertua plazan.
Concierto de los grupos Los Zopilotes Txirriaos y Skakeitan en la plaza.

OHARRA: Mozorro eguna dela eta mahaiak eta aulkiak izango dira plazako arkupetan.

Como día de disfraces se instalarán mesas y sillas en los porches de la plaza.

TXOSNA GUNEKO EGITARAUA

14:30 Herri bazkaria.

23:30 DJ Jo ta Txo.

Apirilak 26, igandea



09:30 **IBILALDI NEURTUA**
Jubilatuen ibilaldi neurtua.
Marcha regulada de jubilados.

11:00 **PILOTA**
Pilota eskolen arteko topaketa, Lazkao, Olaberria, Ormaiztegi plazako pilotalekuan.
Competición entre las escuelas de pelota de Lazkao, Olaberria y Ormaiztegi en el frontón de la plaza.

11:00 **ARTISAUTZA**
Artisau azoka eta talogileak plazan. Baserria 21 elkarteak antolatutako azoka (Zenbait baserrik naturarekin ekoiztutako elikagai osasuntsuen azoka eta elkartearen aurkezpena).
Durante la mañana feria de artesanía y Lazakaoko Talogileak en la plaza. Presentación de la asociación Baserria 21 (productores de alimentos saludables respetando la naturaleza).

12:00 **CASTELLER**
Catalunyako Casteller de Sant Vicenç dels Horts taldea plazan.
Actuación del grupo de Casteller de Sant Vicenç dels Horts en la plaza.

18:00 **PILOTA**
Pilota txapelketa herrikoia finala plazako pilotalekuan.
Final del campeonato popular de pelota en el frontón de la plaza.

19:00 **DANBORRADA**
Haur danborradaren irteera San Prudentzio auzotik eta amaiera plazan. Ondoren Jundajo txaranga herrian zehar.
Tamborrada infantil, salida desde el barrio San Prudencio y llegada a la plaza. A continuación actuación de la charanga Jundajo por el pueblo.

Apirilak 27, astelehena



11:00 TAILERRA

Tringili trongolo tailer eta jokuak Lazkao Txiki plazan.

Talleres y juegos con Tringili trongolo en la plaza Lazkao Txiki.

17:00 DANTZA

Break dance ikastaroa plazan.

Cursillo de break dance en la plaza.

18:00 MEZA

Bezpera elizkizunak San Prudentzio ermitan.

Vísperas en la ermita San Prudencio.

19:00 BURUHANDIAK

Buruhandiak Antzar Gazteak txistulariekin.

Cabezudos acompañados por los txistularis Antzar Gazteak.

20:00 DANBORRADA

Helduen VI. danborrada, irteera San Prudentzio auzotik eta amaiera plazan.

VI edición de la tamborrada de adultos, salida del barrio San Prudencio y llegada a la plaza.

22:30 KONTZERTUA

Gauerdi eta Karnero Blanco talde lazkaotarren kontzertua plazan.

Concierto a cargo de los grupos lazkaotarras Gauerdi y Karnero Blanco en la plaza.

OHARRA: Ohiko asteleheneko azoka mantendu egingo da.

La feria semanal se mantiene.

Apirilak 28, asteartea

San Prudentzio eguna



09:00 TXISTULARIAK

Txistularien goizeresia.

Diana de txistularis.

10:30 PROZESIOA

San Migel parrokiatik abiatuta, San Prudentzio ermitara.

Procesión a la ermita de San Prudencio, partiéndo de la parroquia San Miguel.

11:00 MEZA

San Prudentzio ermitan Meza Nagusia.

Misa Mayor en la ermita San Prudencio.

12:00 TRIKITILARIAK

Lazkao Txiki musika eskolako trikitilariak plazan.

Animación a cargo de los trikitilaris de Lazkao Txiki musika eskola en la plaza

13:00 SOKA DANTZA

Udal ordezkarien soka dantza Udaletxe aurrean, txistulariekin eta dantzariekin.

Soka dantza de los representantes municipales delante del Ayuntamiento, con la participación de txistularis y dantzaris.

18:00 DANTZA

Triki dantza Oin Arin dantza taldearen eskutik plazan.

Triki dantza con Oin Arin dantza taldea en la plaza.

19:00 MUSIKA

Jon Urbieta DJ-arekin erromeria plazan.

Romeria con el DJ Jon Urbieta en la plaza.

TXOSNA GUNEKO EGITARAUUA

18:30 Patata tortila lehiaketa plazan.

Apirilak 29, asteazkena

Haurren eguna



09:30 TXISTULARIAK

Antzar Gazteak txistulariekin goizeresia.

Diana a cargo de los txistularis Antzar gazteak.

11:30 HAUR PARKEA

11:30-13:30 / 16:00-18:30 Haurrentzako parkea hiru gunetan.

Gurutzeko gunegorrian, Lazkao Txiki zelaian eta San Jose auzoan. (Eguraldi txarra eginez gero Kiroldegian). Herrian zehar tren.

Parque infantil en tres zonas del municipio: Campo rojo de Gurutze, Lazkao Txiki zelaia y barrio San Jose (Con mal tiempo el parque se trasladará al Polideportivo). Tren por las calles del municipio.

18:30 MUSIKA

The Kites taldea, play back ikastolako gaztetxoekin, ondoren Egan taldearen emanaldia.

Actuación de los grupos The Kites, play back con los jóvenes de la Ikastola y a continuación verbena con Egan.

19:00 SARDINAK

Sardina jana plazan.

Sardinada en la plaza.

22:30 MUSIKA

Egan taldearen emanaldia plazan.

Actuación de Egan en la plaza.

Apirilak 30, osteguna Kuadrilen eguna



12:00 ANIMAZIOA

Jainekin txaranga herrian zehar.

Animación a cargo de la charanga Jainekin.

12:30 KUADRILAK

Kuadrilen irteera, Jainekin txarangarekin.

Salida de cuadrillas acompañadas de la charanga Jainekin.

18:00 HAURENTZAKO IKUSKIZUNA

Hodei magoa eta Tiritatxo plazan.

Espectáculo infantil 'Hodei magoa eta Tiritatxo' en la plaza.

18:30 ANIMAZIOA

Jainekin txaranga herrian zehar.

Animación a cargo de la charanga Jainekin, por el municipio.

19:30 PERKUSIOA

Brinkadeira Evolution perkusio taldea herrian zehar.

Actuación del grupo de percusión Brinkadeira Evolution por el municipio.

23:00 KONTZERTUA

Gozategi taldearen kontzertua plazan.

Concierto del grupo Gozategi en la plaza.

TXOSNA GUNEKO EGITARAUA

23:30 Kontzertuak: Ladislao eta Anestesia.

Maiatzak 1, ostirala



10:30 ARRANTZA

Haurrentzako arrantza txapelketa Agauntza ibaian, Aresoko jolastoki parean.

Campeonato de pesca infantil en el río Agauntza a la altura del parque de Areso.

11:00 IGERIKETA

XXIII Eskualdeko igeri lehiaketa udal kiroldegian.

XXIII campeonato comarcal de natación en el Polideportivo.

12:00 SUKALDARITZA

XXVII .Bakailao lehiaketa plazan.

XXVII concurso de bacalao en la plaza.

13:00 HERRI KIROLAK

Urrezko Aizkora plazan.

Urrezko Aizkora en la plaza.

16:00 TOKA

Toka lehiaketa plazan.

Campeonato de toca en la plaza.

18:00 DANTZA

XXXV. Dantza suelto txapelketa plazan.

XXXV edición del concurso de baile al suelto en la plaza.

22:30 DANTZA

Aretoko dantzak Lazkaoko taldearen eskutik.

Bailes de salón con el grupo de Lazkao.

Maiatzak 2, Larunbata Lazkaomendi



10:30 TXIRRINDULARITZA

XXXIX. Lazkaomendiko proba. Gipuzkoako Klasika 2015, junior maila.
XXXIX prueba Lazkaomendi Clásica de Gipuzkoa 2015, categoría junior.

16:00 PUZGARRIAK

Arratsalde osoan Pipasen.
Hinchables en el Pipas.

17:00 PAILAZOAK

Patxin eta Potxin pailazoen 'Ipar Amerikako indigenak' emanaldia, Pipasen.
Actuación de los payasos Potxin y Patxin 'Ipar Amerikako indigenak' en el Pipas.

18:30 MUSIKA

Erromeria Elustondo anai-arreba trikitilariekin Pipasen.
Romería con los trikitilaris hermanos Elustondo en el Pipas.

21:00 AFARIA

Auzo afaria, Pipasen, Itxurrenen eta Lartxai elkartean.
Cena vecinal en el Pipas, Itxurrene y en la sociedad Lartxai.

23:00 MUSIKA

Erromeria Agurtzane eta Ion Elustondo trikitilariekin Pipasen eta Epelde (Porrue) eta Lurtxundio trikitilariekin Itxurrenen.
Romería con los trikitilaris Agurtzane y Ion Elustondo en el Pipas y con los trikitilaris Epelde (Porrue) y Lertxundio en Itxurrene.

Maiatzak 3, igandea

Lazkaomendi



08:30 **IBILALDI NEURTUA**

Lazkaomendiko ibilaldi neurtua, irteera plazatik.

Marcha regulada a Lazkaomendi, salida de la plaza.

11:00 **HAUR JOLASAK**

Lazkao Txiki musika eskolako trikitilariekin eta Oin Arin dantza taldearekin. Ondoren Zeberio eta Peñagarikano bertsolariak Itxurrenen.

Juegos infantiles y romería con los trikitilaris de Lazkao Txiki musika eskola y Oin Arin dantza taldea. A continuación bertsolaris: Zeberio y Peñagarikano en Itxurrene.

EGUNEAN ZEHAR **Asto gurdietan ibilaldiak.**

Paseos en carro tirado por burro durante el día.

12:30 **MEZA**

Meza Nagusia ermitan.

Misa Mayor en la ermita.

17:30 **HERRI KIROLAK**

Aizkolariak: Atutxa II - Mugerza III; Azurmendi - Rekondo (10 kanaerdiko). Harrijasotzailea: Aimar Hirigoien. Tronza, txingak, lokotxa: Iari - Ainhoa.

Deporte rural.

19:00 **ERROMERIA**

Izar eta Alabier trikitilariekin eta bertsolariekin, Itxurrenen.

Romería con los trikitilaris Izar y Alabaier y bertsolaris en Itxurrene.

FESTETAKO MUSIKA TALDEAK



SKAKEITAN

2008an sortutako taldea da eta sortu zenetik etengabe ibili da herriko festa, gaztetxe eta ha- maika tokitan kontzertuak emanez. Hau ho- rrela beraien abestiak konposatzen hasi zirenean eratu zen Skakeitan talde bezala. Tal- dearen izaera ez zen erabat osatu lehen diskoa "Ahots gabekoen ahotsa" plazaratu zuten arte 2012. urtean.

Handik aurrera Vendetta, Zea Mays... talde- ekin batera jotzeko aukera izan dute Donos- tiako Zurriolako hondartzan.

Gogotsu daude beren lan berria zuengana iritsi eta proiektu honekin aurrera jarraitzeko inongo mugarik gabe.




LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS

Talde hau Nafarroan sortu zen 2010. urtean. Bere lehenengo diskoa "Hijo de la Txingada" 2011. urteko udaberrian plazaratu zuten. Talde honek Euskal Herriko txoko guztietara iristeko asmoa du eta aurrerantzean Euskal herritik kanpo ere bai.

KARNERO BLANKO eta GAUERDI

Lau lazkaotar gaztek osatzen dute talde haue- tako bakoitza eta jendaurreko estreinaldi eki- taldia San Prudentzio jaiotan egingo dute plazako oholtzan. Talde bakoitzak bateria batek, bi gitarrek, baxu batek osatzen dute. Animo!



THE KITES

The Kites (Kometak) Lazkao Txiki musika eskolako 5 neskek (Saioa, Leire, Eider, Maddi eta Aizpea) osatutako ahots taldea da. Urte beteko ibilbidea badute ere, dagoeneko hainbat kontzertu eskaini dituzte Gipuzkoan zehar. Aipatzekoa da ere, ETB Teko A Ze banda lehiaketan parte hartu zutela; lehiaketa honetan 2. postua irabaztea lortu zuten. Taldea gaztea bada ere, ez zaie ilusiorik falta, eta beraien energia guztia oholza gainean erakusten dute.



ANESTESIA

Anestesia taldea Zarautzen sortu zen rock taldea da. Talde honek 25 urte daramatza oholza gainean, beraz musika ibilbide luzea bezain oparoa burutu du. Azkenaldi honetan emandako kontzertuetan egoera ezin hobean dela erakutsi du, sekulako kontzertuak eskainiz. Oraingoan Lazkaoko Txosna gunean izango ditugu, ikustekoa!



LADISLAO

Xabier Lekuona, Josu Errasti eta Joseba eta Iker Artza lazkaotarrek osatzen dute Ladislao musika taldea. 2014. urtean "Pantailak" diskoa aurkeztu zuten Lazkaon.

Aurretik Brigada Criminal edo Captain Nemoko taldekide izan dira eta elkarrekin zenbait bertsio egin ondoren, laukoteak kantu propioak sortu ditu hard-corea eta punk-rocka nahastuz. Talde honek Txosna gunera hurbildutako guztioi eskainiko dizkigu zuzenean beraien abestiak.

LAGNY (Ginea Conakriko dantza taldea)

Ginea Errepublikako musika eta dantzak eskainiko ditu Lazkaon. Tradiziotik abiatuta lan originalak sortzen dituzte. Ikuslea, Afrikara eramateko asmoz izan ere, kontinenteko erritmoa eta indarra taularatzen dute.

Lagny taldea zortzi musikari eta dantzari profosionalak osatzen dute. Lazkaon Afrikaren zatitxo bat ikusgai eta ikasgai izateko asmoz. Bertan ballet Wofa, ballet Mazanedo ballet Soleiko dantzariak elkartuko dira.





SAN BENITO IKASTOLA-k

SAN PRUDENTZIO JAI ZORIONTSUAK opa
dizkizue guztioi,

Apirilaren 24, 25, 27, 28, 29 eta 30 egunetan San
Prudentzio eraikuntzako patio estalian **AFARIAK**
eskainiko dituela adierazten dizue.

GIRO PAREGABEAN AFALDU eta
IKASTOLARI LAGUNDU!!!
ANIMATU!!!